

Agiritegiak. Gizarte Zientzien ikaskuntza-irakaskuntzarako gunea

Aritza Saenz del Castillo

Gizarte Zientzien Didaktika Saila
Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

GAKO-HITZAK: Artxiboak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua, baliabide didaktikoak, informazio iturriak, Lehen-Bigarren Hezkuntza, Historia.

1. SARRERA

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzien (GGZZ) irakaskuntzan metodo zientifikorako gerturatzeak orain arte oso urriak izan dira. Historiaren irakaskuntza tradizionalan irakasleak kontzeptuak helarazten zituen eta ikasleak bereganatu eta memorizatu, azken honen papera ikaskuntza prozesuan nahiko pasiboa izanez (Navarro, 2008). Magistrozentrismoko joera konduktista honekin apurtzeko, ikaslearen protagonismoa sustatzeko eta enpatia eta motibazioa pizteko, azken urteotan Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ikaslearen azterketa eta esperimentazioa lantzen duten metodo pedagogikoen zabalkundea eman da (Oller, 2011). Halaber, artxiboek hezkuntza komunitatera zabaldu eta beren heziketa zerbitzuen sorrera martxan jarri dituzte. Azkenik, Annales-eko eskolaren hazkundearekin eta materialismo historikoaren, paradigma interpretatibo estrukturalistaren eta historia nazionalen gainbeherarekin, historia lokalaren —ez kostunbrista ezta deskriptiboa, baizik eta analitikoa— garrantzia egunetik egunera handitu da¹. Hau guztia kontutan izanda,

¹ VV.AA., Historiografía contemporánea reciente, *Historia Contemporánea*, n.º 7, 1992. Beste maila batean, baina Lehen Hezkuntzako GGZZen irakaskuntzarekin lotuta, historia lokala aztertzen duten ikasliburuak agertu ziren 1980ko hamarkadan eta geroago. Honen adibidea Gasteizko historiako «VV.AA., Gasteiztxo, Vitoria, Ayuntamiento de Vitoria-Caja de Ahorros de Vitoria, 1987»; Arrigorriagako historiako «Lautso S.L., Arrigorriaga. Harri gorrien mezua, Arrigorriaga, Arrigorriagako Udala, s.f.». Ikasleen interesa erakartzeko komiki eran aurkezten ziren.

GGZZen didaktikaren barnean aldaketa metodologikoak gauzatu dira, artxiboak ezagutzaren eraiketan protagonista bilakatuz (Hernández eta Serrat, 2002; González eta Martín, 1995; Rubio, 2005); lehen eskuko iturriak ikasgeletara eta ikas liburuetara eraman dira eta beren lanketa ikaskuntza prozesuaren parte bihurtu da, baliabide didaktiko interesgarriak izanez. Ezagutzaren eraiketan iturrien analisia, balorazioa eta interpretapena bultzatu egin da, XXI. mendeko Informazio Gizartean hain garrantzitsua den pentsamendu kritikoan sakonduz. Horrela, ikaslea praktika zientifikoetan eta historialarien lanean eta metodoan murgiltzen hasi eta ikasketa prozesuaren agente aktiboan bihurtu da, Eskola Berriaren paradigma paidozentrista martxan jarri (Tribó, 2001, 2002, 2005). Honek, gutxi arte ez bezala, GGZZen ikasketa prozesu eraikitzaile eta motibagarria ekarri du.

Joera hau areagotzeko eskola eta agiritegien arteko harremana sendotzen joan da, agiritegiak lehen eskuko iturri gehien jabe baitira. Edonola ere, gerturatze honetan oraindik aurrera pausuak eman behar dira, agiritegi askorentzat helburu didaktikoak bigarren mailako edo zeharkako helburuak baitira, nahiz eta beren iturriak orainaren aurrekariak ulertzeko ezinbestekoak izan². Era berean, agintaritzaren politikoak beste motatako ondarearen ustiaketa bultzatu du, identitate zehatz bat goraiatzeko baliagarriagoak izan direnak³, artxiboak eta bere iturrien erabilerak helburu politikoekin gaizki uztartzen baitute, hausnarketa eta kritikotasun maila handiagoa eskatzen dutelarik. Azkenik, artxiboak hezkuntzarako potentzial handiko baliabideak edukita ere, hainbat iturrien transposizio didaktikorik gabe —eraldaketa, egokitzapena eta moldaketarik gabe— funtzio didaktiko eskasa edukiko lukete, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen gaitasun kognitiboetatik urrunegi baitaude (Hallam, 1983).

Pilar Arostegik, Gasteizko udaletxeko agiritegiak, 2007 geroztik bere iturrien funtzio didaktikoa ikusita, eskola eta hezkuntza munduarekin harremanak ezarri ditu, «Artxiboak. Vitoria-Gasteiz heziketarako espazio gisa» proiektua garatuz eta GGZZen didaktikari garrantzia emanez⁴. Horrela, proiektu honen barnean diseinatutako jarduera didaktikoei agiritegiaren iturri ezberdinen lanketa proposatzen dute, ikaslea bere kabuz ezagutzaren eraiketa egin, aurkintza bidezko ikaskuntzara gerturatu eta GGZZen curriculumeko edukien ikaskuntzarako hain garrantzitsuak diren

² Frantziak, Britainia Handiak eta Irlandak jada, xx. mendearen erdialdean eskola eta agiritegien arteko lotura ezarri zuten, hezkuntza komunitateetan lehen eskuko iturriekin lanean aritzea oso errotua egonez (Vela, 2002)

³ Monumentuak, erakusketak, bilduma museistikoak normalean diskurtso identitarioak era sinbolikoan legitimatzeko egin dira, nahiz eta ez dugun ukatuko beren balio didaktikoa (Prats eta Hernández, 1999). Gaur egun adibide garbia dugu 1813ko Gasteizko batailako 2. mendeurren delat eta armeria museoak antolatutako erakusketa: «Napoleón en Vitoria. Batallas y soldados, en la Guerra de la Independencia»

⁴ Bide batez María José Marinas eta María José Monge Gasteizko Artxiboko proiektu honen arduradunei eskerrak luzatu nahi genieke, eskainitako laguntzagatik

espazio eta denbora kontzeptuez jabetu dadin; era berean, ikasleengan dokumentu originalen manipulazioak enpatia sortu eta antzinako gizarteari buruz interesa eta kuriositatea piztuko du; kasu honetan, dokumentu originalen erreproduzioekin lan egitean emaitza antzekoak lortuko ditugu, ikasleek ondarearen garrantziaz jabetu eta hauenganako errespetuaren kontzientzia hartuko dutelarik.

Artxiboaren potentzialtasuna ikasleak bere gertuko ingurua eta gizartea aztertzeke eta ezagutzeko beharrezkoak diren iturriak ematean datza eta bide batez, historia orokorreko prozesuekin konparatzea eta harremana ezartzea ahalbidetu; hortaz, arestian azaldutako Gasteizko agiritegiaren proiektu hezigarriaren jarduerak Gasteizko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat erabilgarriak izango dira soilik. Bertakoak ez diren ikasleentzat iturri hauen erabilerak ikaskuntza prozesuan makina arazo ekarri ditzake, ariketa hauek exijitzen dituzten aurre ezagutzak ez baitituzte, lotura eta eragiketa mentalak egiteko abstrakzio maila handiagoa behar dutelarik. Halaber, ikasleen motibazioa pizteko ez lukete balioko, inguruarekin elementu sozio-afektiboak ezartzeko zailtasuna aurkituko baitute⁵.

Artxiboen probetxu didaktikoa ikusirik, artikulu honen helburua Gasteizko agiritegiak izendaturiko «Artxiboak. Vitoria-Gasteiz heziketarako espazio gisa» proiektuaren barnean GGZZen irakaskuntza-ikaskuntzarako baliagarri eta eskuragarri jarri dituen material ezberdinen garrantzia aztertzea izango da, beraien deskribapena eta analisi kritikoa eginez; hau da, artxiboak iturri ezberdinekin diseinatutako jardueren gaineko hausnarketa egin eta hauen potentzialtasun didaktikoa handitzeko iradokizunak plazaratuko ditugu.

2. GASTEIZKO AGIRITEGIAREN ANTOLAKETA

Gasteizko agiritegiak, 1181 urte geroztik eta hiriaren fundazioaren ostean sortutako dokumentu ezberdinak gordetzen ditu. Bertako dokumentazioa 4 arlo nagusietan banatzen da, iturriek dakartzaten informazioa eta hauen izaera kontutan izanda; horrela, sail historikoa, administratiboa, grafikoa eta bibliografikoa dauzkagu. Sail historikoaren barnean Gasteizko eta inguruko udaletxeek (Arinez, Foronda, Mendoza) eta hiriko hainbat erakundeek (hospizioa, epaitegi munizipala, kofradiak...) sortutako dokumentazioa gordetzen da; berriz, sail administratiboak Gasteizko udaletxearen bulego ezberdinek hiritarrei eskainitako zerbitzuetan eta hiriaren antolaketa eta organizazioan sortutako dokumentazioa jasotzen du; sail grafikoari

⁵ Gasteizko agiritegiak dituen iturriekin planteatutako jarduerak, geroago aztertuko ditugunak, Bilboko irakasle-eskolako ikasleekin lantzean zailtasun anitz aurkitu ditugu, Euskal Herriko hiriburuari buruz behar dituzten aurrezagutzak oso urriak baitira eta tokiarekin lotura sozio-afektiboak ez baitituzte, desmotibagarriak suertatuz. Honek gure baieztapenaren egokitasuna azpimarratzen du.

dagokionez, 3 azpisailetan banatuta dago, iturrien izaeraren arabera: fondo kartografikoa (mapak, planoak, marrazki teknikoak...); argazki fondoa; bestelako iturri grafikoen fondoa (kartel ilustratuak, grabatuak, txartel postalak, egutegiak...). Azkenik, sail bibliografikoa daukagu, tankera ezberdineko liburuez osatua dagoena, beti ere ikerketa historiko eta ezagutza lokalarekin harremana dutenak.

Gasteizko agiritegiak planteatutako jarduera didaktikoetan sail ezberdin hauetako iturriak erabiltzen dira, hauen artean honako hauek erabilgarrienak izanik: iturri hemerografikoak (aldizkari eta egunkariak), agiri ofizialak, iturri kartografikoak (mapak eta planoak), iturri ikonografikoak (argazkiak) eta liburuak. Hala ere, ikasleen gaitasun kognitiboa eta adimena kontutan izanda, ez ditugu jarduera guztiak aztertuko, ez baitugu uste funtzio didaktikoan eraginkorrak izan daitezkeenik. Adibidez, agiri ofizialak euskarri bezala erabiltzen dituzten ariketek, bere konplexutasuna dela eta⁶, edo liburuetan oinarritutakoak, ikerketa bidezko ikaskuntzara ezer gutxi eskaintzean, baztertuko ditugu. Aldiz, argazkietan, planoetan, aldizkarietan eta egunkarietan oinarritutako jarduerak aproposak direla deritzogu. Dena den, gure iritziz, egunkarietako erabilera eta bertatik atera daitekeen informazioa, aurretik ikuskatu egin beharko zen, behar izatekotan iturria moldatuz eta egokituz, ikasleentzat erabilgarria izateko.

Hau dena kontutan izanda, Gasteizko artxiboak planteatutako jarduera ezberdinak hiru atal didaktikoetan banatuta daude: hiriaren historia irudietan; industria eta merkataritza; eta Andra Mari Zuriaren jaiak. Hurrengo lerroetan atal bakoitzaren barnean ditugun hainbat ataza aztertu eta beren baliagarritasuna eta gabeziak ikaskuntza-irakaskuntza prozesurako azpimarratuko ditugu.

3. GASTEIZKO AGIRITEGIAK PROPOSATUTAKO JARDUEREN DESKRIBAPENA, ANALISIA ETA EBAZPEN KRITIKOA

3.1. Hiriaren historia irudietan

Sail honetan Gasteizko hiriaren aldaketak eta segidak denboran zehar aztertzen dira, hiriaren morfologian, demografia hazkundera eta ogibideen bilakaeran erreparatuz. Horretarako agiritegiko iturri ezberdinak landuz hainbat ariketa proposatzen dira; horien artean, kartografia, margolanak, argazkiak, aldizkari eta egunkarietako iragarkiak erabilgarrienak izan dira.

⁶ Nuria Serratek, irakasleak artxiboen iturrietan oinarritutako proposamen didaktikoak garatzean aurkitzen dituen zailtasunen artean agiri ofizialen ez egokitasuna azaltzen du, erabiltzen duten lengoia ikasleentzat ulerterraza ez delako (Serrat, 2002). Guk berarekin bat etorri Gasteizko agiritegiak planteatutako jarduera batzuk baztertu ditugu, paleografia eta latinaren ezagutza eskatzen dutelako.

Lehenengo ariketari dagokionez, ikasleei xx. mendearen hasierako plano bat aurkezten zaie eta bertan garai horretako El pájaro azul (1928) aldizkaritik ateratako ogibide batzuen iragarkien helbideak bilatu beharko dituzte. Tipologia honetako jarduerak ugariak dira atal honetan, non plano bat eta egunkarietako iragarkiak eskaintzen zaizkigun, denboran zehar errepikatuz eta garai historiko ezberdinen egoera aztertuz — 1882, 1971 —. Ariketa hauen helburua, ikasleek kaleen izenen aldaketa, hiriaren morfologia eta horrekin lotuta eraikin batzuen identifikazioa eta ogibideen bilakaera aztertzea da. Ikasleek gaur egungo kaleen izenetatik abiatuta eta kontutan edukiz erdi guneko kale batzuen izena ez dela aldatu, hiriaren erdigunea jatorrizkoa bezala ia mantentzen baita, orientazioa landuko dute. Plano hauek espresuki aukeratuak izan dira, legenda ezberdinak erabilita, eraikinen garrantzi ezberdina adierazten dutelako. Horrela, gunen honetan dauden eraikin adierazgarrienak berdez margotuak izan dira, horien artean elizak, komentuak eta militarren egoitzak besteak beste goraitatuak izanez, XIX. eta XX. mende hasieran Gasteiz «apaiz eta militarren hiria» definitzen zuten esaldiari men eginez.

Ariketaren ildoak jarraikita, ikasleek kale eta eraikin horien lokalizazioaren bitartez orientazioan hain garrantzitsuak diren puntu erreferentzialak ezartzeko, gertuko geografia fisiko eta politikoaren elementu garrantzitsuenak kokatzeko eta hainbat irudikapen interpretatzeko aukera izango dute. Beren esperientziatik abiatuta, jarduera honen bitartez espazioaren kontzeptualizaziorako eta bere adierazpen grafikoa ulertzeko, bereganatzeko eta irudikatze gaitasuna landuko dute. Ondorioz, testuinguru aktibo eta ikaskuntza praktikoa eta funtzionalean oinarrituz, ikasleek beren espazio-pertzepzioen gainean hausnartu eta beren buru mapak aberastuko dituzte, kartografia lengoaiaren ikaskuntzan sakonduz. Horrela, espazioaren, eskalen eta grafiko errazen oinarritzko irudikapena bereganatuko dute, planoak eta maketak irakurtzen, interpretatzen eta erreproduzitzen ikasiz. Eran berean, espazioaren aldakuntza denboran zehar aztertze baliagarria izango da. Ikasleek hiriaren aldaketa urte gutxitan eman dela ondorioztatu dezakete, XX. mendearen hasierako morfologia gutxi gora behera Erdi Aroko gunen primigenioarekin bat zetorrelako. Hori dela eta, igarotako mendean aldaketa soziodemografiko itzelak eman zirela jabetuko dira, gizartearen bilakaeraren erritmo ezberdinez ohartuz (– azelerazioak, etenaldiak – denbora tarte berean gizartearen aldaketak bizkorrago edo geldoago eman daitezke) eta gizakiaren aktibitateak ingurugiroan duen eraginaz hautemanez.

Nahiz eta jardueraren jatorrizko diseinuak ez planteatu, gure ustez ariketa honek beste edukietan sakontzeko balioko luke, iragarki kontutan hartuta ogibideen eta gizartearen aldaketa eta bilakaera aztertze baliagarria baitago. Jarduera honek, garai batean ekonomia nola antolatzen zen eta ekonomiaren barnean zein jarduera ekonomiko genituen, eta bidez batez, garai horietako Gasteizko gizartearen bizimoduak ikusteko aukera emango digu. Gure iritziz, galdera batzuen bidez ikasleen jakin-mina piztu eta gi-

zartea gaur egungo egoerarekin alderatuta nola aldatu den denboran zehar aztertu dezakegu. Hala, ikatza eta argizariaren fabrikazioari eta salmentari erreparatzen dieten iragarkiek azpimarratzekoak dira. Hauetatik abiatuta hurrengo galderak plazaratu genitzake ikasleen hausnarketa bultzatzeko: Zein energi iturri ezagutzen dituzu gaur egun? Garai hartan zure ustez zein energi iturri erabiltzen zuten? Zertarako uste duzu energi iturri hauek —ikatza eta argizaria— erabiltzen zituztela? Nola berotzen dira gaur egun etxebizitzak? Eta iraganean? Gauean liburu bat irakurri nahi izanez gero, nola egingo zenuke? Iraganean nola egiten zuten?

Horrez gain, artxiboak diseinatu ez dituen hainbat galdera sortaraziz ariketa honek beste helburu zehatzagoak eta sakonagoak lantzeko aukera ematen du, iturriak era eraginkorragoan esplotatu daitezkeelarik, beti ere ikasleen adina, gaitasunak eta jaso behar dituzten edukiak kontutan izanda. Adibidez, GGZZetan eta Historiako ikaskuntza-irakaskuntzarako hain garrantzitsua den kausalitatea jorratu daiteke. Lehen aipatutako kaleen izenetatik abiatuta, izen hauen zergatiaz galdetu dezakegu: Zergatik kaleek izen horiek daramatzate? Artisauen kaleen izenetan erreparatuz gero (Herrería, Zapatería, Cuchillería...), garai bateko antolakuntza ekonomikoa azaltzeko balio izango digu. Bestalde Frantzia, Belgika edo Aliatuen kaleak aztertuz gero, gertakari baten aurrean —I. mundu gerra— Gasteizko udaletxeak izandako jarrera aztertzeko balio izango digu —aliatuen aldekoa—. Bukatzeko, beste kale batzuek garai batean onartutako hiriko biztanle gorai-patuenen izena daramate, Manuel Iradier, General Álava, Cadena y Eleta, Olaguibel, besteak beste, pertsonai hauen biografiatan sakondu dezakegularik, ikasleen interesa erakarrit.

Sail honen barnean beste motako jarduera batzuk ditugu. Bigarren ariketa batean, Juan Angel Saez-ek 1862an eginiko Gasteiz irudikatzen zuen margolanak erabilita, ikasleek garaiko hiriaren 6 esparru topatu beharko dituzte (harresiak, komentuak, espetxea, erreka, hiriaren sarbideak, ortuak). Esparru bakoitza margolanaren zati batez irudikatuta egongo da eta ikasleak artelan osoan kokatzeko gai izan beharko dira, puzzle bat eraikitzen ariko balira bezala. Jarduera honen bidez XVII. eta XIX. mendeen bitarteko hirigintza aztertuko da. Lehenik eta behin, ikasleek hiriko harresiak kokatu behar dituzte; honekin batera eraikuntza hauen jatorria azaltzen da. Ikaslea artelanean bi harresi irudikatuta daudela jabetuko da. Hortaz, egitura hauen funtzioaz hausnartuko du eta ulertuko du nola Erdi Aroan zehar, denbora igaro ahala, hiria handitzen joan zela eta babestu behar ziren biztanleak gehiago zirela, harresi berri baten eraikuntza beharrezkoa izanik; bide batez, Cercas Bajas kalearen izenaren sentua ulertuko du. Bigarrenik, San Frantzisko komentua kokatu beharko dute, honen historia laburra aipatzen delarik. Era berean, gaur egungo Gasteizko San Frantzisko kalearen jatorriaren izena argitzen da, 1930rarte komentua bertan egon baitzen. Horrela 6 iruditxoak kokatu arte. Ariketa honek hiriaren barnean gizarteak aurrera eramane behar zituen funtzioak aztertzen ditu eta nola honek hiriaren

antolaketa baldintzatzen zuen. Garai bateko gizartearen funtzioak eta gaur egunekoak berdinak ez izanda, ikasleak hiriaren aldaketaz jabetu beharko dira, eraikin, eraikuntza eta espazio batzuen desagerpenean erreparatuz. Berriro ere gizakien aktibitateak ingurugiroan nola eragiten duen agerian geldituko da.

Agiritegiak diseinatutako hirugarren jardueran ikasleen ulermena eta informazioaren hautaketa landuko da. Lau argazki ditugu, hirian emandako bi gertakari garrantzitsu islatzen dituztenak. Alde batetik, posta eraikin berriaren estreinaldia (1928) eta bestetik, General Álava kalearen luzapena (1959). Alboetan gertakari horiek deskribatzen dituzten egunkarien pasarteak ditugu, beste batzuekin batera nahastuak. Ikasleek egunkarietako hainbat berri ikertu beharko dituzte eta behin egunkarien artikuluko egokiak aukuratuta eta irakurrita — gertakariekin harremana dutenak —, gai izan beharko dira argazki bakoitza gertakari zehatzarekin identifikatzen.

Horrez gain, ulermen historikoan sakontzeko iradokizun bezala, gure iritiz ariketa honek baita ere garai horretan ohikoak ziren komunikabideak (telegrafoa eta gutunak) aztertzeko aukera ematen digu eta hauek nola denboran zehar aldatu egin diren. Horretarako, ariketaren gehigarri bezala, ikasleei hurrengo galderak planteatzea proposatzen dugu: Zeintzuk ziren XX. mendeko bigarren hamarkadan erabiltzen ziren komunikabideak egunkariaren artikuluen arabera? Badakizue nola funtzionatzen zuten? Gaur zein komunikabide erabiltzen dugu funtzio horiek betetzeko? Beren bila-kaera azaltzeko gai zara?

Honekin lehenengo atalaren analisia amaitutzat emango dugu. Gasteizko artxiboaren heziketarako programak jarduera gehiago proposatzen baditu ere, gure ustez hauen funtzio didaktikoa eskasagoa da, aurrezagutza sakonak eta bereziak eskatzen baititu; halaber, bere transposizio didaktikoa edo iturrien egokitzapena ikasleen beharrak asetzeko nekagarria izan daiteke. Adibidez, hauetako jarduera batek hiriaren fundazio forua (1181) aurkezten du eta ikasleek bertan agertzen diren hutsuneak bete beharko dituzte, originalaren kopian erreparatuz. Honek latina eta paleografiaren eza-gutzak eskatzen ditu, nahiz eta testuaren itzulpena beherago agertu. Ariketa hau Lehen Hezkuntza nahiz Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat jarduera zaila eta desmotibagarria izan daiteke, testuan agertzen den informazioa ez baita ulerterraza eta garaiko gizarteari buruz ezer gutxi esaten digulako, ezagutza historikoa eraikitzeko balio eskasa edukiz.

3.2. Industria eta merkataritza

Hurrengo sailaren helburua Gasteizko gizartearen antolaketa ekonomikoaren analisia eta nola hau denboran zehar aldatu den aztertzea izango da. Jarduera ekonomiko garrantzitsuenak ikuskatuko ditu, industrializazio prozesuan arreta berezia jarriz, hiri baten modernizazioaren adierazlea az-

pimarratu nahi delarik. Bestalde, behaketa lan honetan lehen sektorea, hau da, nekazaritza baztertua izan da, ikuspegi hiritar batetik —ikasleek dutena— denboran zehar emandako aldaketak antzemateko zailagoak baitira, XX. mendeko 60. hamarkada-arte esparru ekonomiko hau ezer gutxi aldatu baitzen. Helburu hauek betetzeko, ikasleek hainbat jarduera burutu beharko dituzte, artxiboaren hainbat iturri erabiliz. Horien artean azpimagarrienak hiriaren kartografia (planoak), kale izendegiak, argazkiak, testuak, abestiak, aldizkari eta egunkarietako iragarkiak, etab izango dira.

Lehenengo atazako izenburuak dioenez, kale izendegiak herri baten Historia islatzen du, pertsonai ospetsu, inguru geografiko bereizgarri eta bestelako elementuei aipamen eginez. Ariketa honetan hiriaren planoak eta kale izendegia erabiliz, ikasleek Gasteizen sortutako hainbat lantegien historia eta kokapena ikertuko dute, hiri honetako hainbat kaleren izenek egun batean existitu ziren jarduera ekonomikoak eta lantegiak goraiatzeko baitituzte. Hasteko Herrería, Zapatería eta Correría kaleen izenez baliatuz, industrializazio aurreko jarduerak, artisauen gremioak hain zuzen, azaldu eta aztertuko ditugu. Ikasleak Erdi Aroan eta Aro Berrian zehar indarrean egon ziren produkzio, salmenta eta lan harreman berezietz jabetuko dira. Honekin batera hainbat kontzeptu ulertu eta bereganatu beharko dituzte (gremioak, ogibidea, lankidetzak, monopolioak, salneurria, maisua, ofiziala, ikaslea...). Kontzeptu hauek aztertu ostean, kale hauen kokapena bilatu beharko dute, hiriaren jatorrizko gunearekin identifikatuz.

Bigarrenik eta agiritegiak diseinatutako ariketaren antolaketa ez jarraituz eta biziki kritikatu, gure aburuz larrugileen kalea aztertu beharko zen —ez industria garaiko Lascaray kalea—, historiaren ardatz kronologikoaren logika jarraitzea garrantzitsua delako. Uste dugu ikasleek edozein elementu edo kontzepturen bilakaera historikoa aztertu eta ikasi behar dutenean, jarraipen edo segida kronologikoa errespetatzea egokia dela eta ez irizpiderik gabeko antolaketa batean oinarritzea, baldin eta ez bazaie geroago sekuentzia kronologikoa ordenatzea eskatzen. Lehen Hezkuntzan, Historiako ikaskuntzan eta irakaskuntzan lehenengo periodizazioen ulermena eta bereganatzea ezinbestekoa da (gizakiak ehizan eta arrantzan zihardutenean; nekazarien-abeltzainen garaia; artisauen garaia; lehenengo industrien garaia); hortaz, ikasleak ez nahasteko artisauek eta fabriken-industrializazioaren garaia era nabarmenean bereizi behar dira (Trepas eta Comes, 1998). Hau esanda, larrugileen kalea, larrua lantzen zuten artisauek egoitzez bete zegoen. Ogibide honen kokapena aztertzen denean, zergatik Erdi Aroko hiriaren kanpoaldean kokatua zegoen azaltzea komeni dela iradokitzen dugu —sortzen zuen kiratsagatik eta ibaiaren gertutasuna uraren beharra zela eta—; ez egitekotan, Historiaren ikaskuntzarako hain garrantzitsua den gizakiaren eta inguruaren arteko harremanean sakontzeko aukera galtzen dela uste dugu.

Hirugarren fase batean, denbora historikoaren segidan oinarritutako gure proposamena kontutan izanda, kale batzuen izenez baliatuz Gastei-

zen sortutako lehenengo industriak aztertu beharko dira (Lascaray, Karta plaza, Serafín Ajuria). Hauek XIX. mendean zehar eraiki ziren eta batzuk gaur egun arte iritsi dira. Produkzio esparru ezberdinak lantzen zituzten. Lascaray fabrikak argizari eta kandela produkzio mekanizatuari ekin zion, geroago gizartearen beharren arabera eta garbitasunaren garrantzia zela, xaboiaren produkzioan zentratu zen, gaur egun arte iritsiz; Serafin Ajuriak nekazaritzarako tresneria produzitzen zuen, XIX. eta XX. mendeko Arabako nekazal gizartearen beharrak asetzeko; azkenik, Karta Plazan Fournier lantegia berreraiki zen, jolasteko karten produkzioan arituz. Industrien kokalekua aztertzean, ikusten dugu jada nola erdiguneko esparrutik at kokatzen diren, tailerrak baino espazio gehiago behar duten eraikuntzak izanez. Hiria zabalkundearekin batera auzo berrietan ezarri ziren, lantegi hauen inguruan etxebizitzak eraikiz, bizilekuak eta lantokiak bata bestaren pare kokatuz eta langileen auzoak sorraraziz. Gure iritziz jarduera fase honen potentzial didaktiko osoa eskuratzeko, Gasteizko hasierako industria hauen azterketarekin batera, lokalizazio jardueratik harago joanez, hainbat eduki kontzeptual lantzeko aukera egon zitekeen (fabrika, lurrin makina, makina eta mekanizazioa, langileria, katea, denboraren garrantzia eta txirrinaren menpekotasuna, gizarte klaseen sorkuntza eta lan gatazkak).

Agiriak diseinatutako bigarren jarduerak, Venancio del Val kazetari gasteiztarraren liburutik aterata, Gasteizko Heraclio Fournier karten fabrikaren sortzailearen biografia txikia aurkezten digu (Del Val, 1979), lantegiaren bilakaerarekin uztartua dagoena. Ariketa honen helburua informazioaren ustia ketaren bidez idatzizko testu honen ulermena lantzea da, eta aldi berean, iturri ezberdinen arteko harremanak sortaraztea. Horrela, ikasleek testu biografikoa irakurri ostean, lantegiak historian zehar Gasteizen izan dituen kokapen ezberdinak ondorioztatu beharko dituzte, argazki batzuekin harremanetan jarriz eta laguntza moduan erabiliz. Behin produkzio guneak identifikatuta, berriro orientazioa landuko dute, Gasteizko plano batean kokatu beharko baitituzte.

Gure ustez, berriro ere, bigarren ataza honen potentzialtasun didaktikoa desprobatuta dago, galdera egokien bidez denbora historikoaren ulermenerako eta Historiako ikaskuntza-irakaskuntzan hain garrantzitsuak diren segida, aldiberekotasuna eta iraupen kontzeptuak lantzeko aukera ematen baitigu. Ariketa osatzeko eta eraginkorragoa izateko, adibide moduan hurrengo galderak proposatzen ditugu: Testua idatzi zen garaian (1979) lantegia non kokatua zegoen? Zenbat urte iraun zuen bosgarren egoitzan, hau da, Fuegos eta Manuel Iradier kaleen esparruan? Kokaleku honetako fabrikaren argazkia aztertu ostean (4. Argazkia), eraikinaren berezitasunen bat gaur arte iritsi al da? Zein dela uste duzu? Arreta jarri izkinatan (kupa). Era berean argazkien segidak denboran zehar, lantegiaren bilakaeraren friso kronologikoa eraikitzeko aukera ematen digu, ikasleek denbora historikoaren irudikapenerako eta ikasketarako garrantzitsuak diren teknika ezberdinekin kontaktuan hasi dezaketelarik.

Era berean, nahiz eta jatorrizko ariketa honetan ez erreparatu, gure iritziz jarduera artisau produktiotik produkzio industrialerako igarobidea aztertzeko baliagarria da. Galdera egokien bidez, igarobide honetan teknologia nola aldatu den aztertu daiteke. Zehaztasun tekniko sakonetan sartu gabe, ez baita Lehen eta Bigarren Hezkuntzako helburua, testua irakurri bezain laster makinaren presentziaz ohartzen gara. Horrela bigarren paragrafoan «Minerva» hitza kaketzen artean bereizten da. Irakasleak aurretik jakinda makina bati aipamen egiten zaiola, ikasleei «Minerva» hitzaren esanahiaz galdetu beharko lieke, Minerva hura zer ote zen? Behin ikasleen erantzunak entzun ostean, irakasleak azaldu beharko zien arte grafikoetan erabiltzen den makina bat dela eta hau agertu baino lehen arte grafikoen produkzioa eskuz egiten zela, margolari artisauez baliatuz. Ondoren, irakasleak galdera hau bota beharko luke: Nola mugitzen zen makina hura?, ikasleek erantzuna testuan aurki dezaten. Behin ikusita eskuz mugitzen zela, gaur egungo egorearekin alderatu beharko zen, non makinak energi elektrikoaren bidez mugitzen diren, teknologiaren bilakaerarekin batera energi iturrien bilakaeran erreparatuz (eskuz, energi hidraulikoz, lurrin makinaz eta ikatzaren garrantzia, energi elektrikoaz, eztanda motorez eta petroleoaren garrantzia).

Atal honekin bukatzeko, agiritegiak hirugarren jarduera bat proposatzen du. Ariketa honen helburua industrializazioak gizartearen antolaketan ekarri dituen aldaketek jabetzea da. Honetarako, gizarteak gizon eta emakumei ezartzen dizkien funtzioak eta hauek familiaren barnean betetzen dituzten zereginak aztertuko dira. Industrializazioak emakumeen parte hartzea etxe kanpoko lan merkatuan ugaritu zuela eta etxeko lanen banaketa berria ekarri zuela dirudi, non gizona etxeko lanetan parte hartuko zuten⁷. Hau dena aztertzeko, Alfredo Donnay musikagileak eginiko abestia «Los modernos amas de casa» irakurri eta analizatuko da, ikasleek kantuan deskribatzen diren hainbat jarduera eskaintzen zaizkien argazkiekin harremanetan jarri beharko dituztelarik. Lehenik, Gasteizko emakumeen industrial lantoki tradizionalak aipatzen dira, hau da, oihaigintza eta jolas karten inpresioarekin lotura dutenak; geroago, eta industrializazioaren eraginez, emakumeak beste lan esparruetan barneratzen direla esaten da, hala nola, garraio sareetan eta bestelako lanbide eta industrietan, eta egunetik egunera joera hau indartzen dioala. Ondorioz, gizona etxeko zereginak egitera behartuak izan zirela dio, non erosketara joatea eta janaria prestatzea azpimarratzen diren. Bide batez, narrazio hau garaiko langileen elikadura eta bizi baldintzak aztertzeko eta gaur egunekoarekin alderatzeko erabiliena izango da.

Gure ustez hirugarren ariketa honek Historiako ikasketa prozesuan sakontzeko ahalmen gehiago du, iturrien potentzialtasun didaktikoan sa-

⁷ Industrializazioaren eraginak emakumeen lan parte hartzean, eztabaida historiografiko sutsua piztu zuen. Gehiago sakontzeko (Borderías, 1994).

konduz. Horrela, ulermena lantzeko eta iturriak ematen duen informazioa ikasleen bizipenekin kontrastatzeko aukera emango digu. Berritua, hainbat galderen iradokizunaren bidez, beren etxeko egoeraz gogoeta egitera bideratuko ditugu —Zure etxeko lanak (arropa garbitu eta eskegi, erratza pasa, janaria prestatu, platerak garbitu, mahaia jaso...) nori egiten ditu? Zure amak eta aitak non egiten dute lan? Zure aitak etxeko lanetan parte hartzen du?; zuk zeuk parte hartzen duzu? Abestiak deskribatutako egoera XX. mendearen hasierari dagokio. Uste duzue abestiaren igarpenak bete direla eta gizartea horrenbeste aldatu dela?— Era honetan ikasleak hausnarketa epistemologiko batean sartuko dira, iturrien fidagarritasuna aztertuz eta horiek egiten duten errealitatearen berezko interpretapenez jabetuz. Horrela, pentsamendu kritikoa garatuko dute eta honen bitartez ezagutza historikoaren objetibotasuna ulertu beharko dute, jakinez interpretazio batzuk zientifikoagoak direla beste batzuk baino.

Ariketaren gabezien artean berriz, gure aburuz abestiaren datazio eza egongo litzateke, ikasleek aldaketa soziologiko eta ekonomiko hau garai historikoan eta kronologian kokatzeko makina arazo aurkituko dituztelako. Pixka bat ikertuz gero, eta musikagilearen biografia ikusita, XX. mendearen lehen erdialdean datatuko genuke.

3.3. Andra Maria Zuriaren jaiak

Atal honetan Gasteizko kulturaren hain garrantzitsuak diren Andra Mari Zuriaren jaiak eta hauen barnean bereizgarriak diren hainbat ekitaldi aztertuko dira. Honen helburua herri baten adierazpen sozio-kulturalak eta ohiturak ezagutzeko eta errespetatzea izango litzateke eta bide batez, jaiak denboran zehar nola ospatu diren eta nola aldatu diren arreta jartzea, gizartea bilakatzen den heinean, ohiturak ere aldatzen direla ohartuz; azken finean herri baten nortasuna bere ospakizun eta ohituretan islatzen baita. Aldi berean, honen ezagutzak beste gizatalderen kultura, ohiturak eta tradizioak errespetatzen lagunduko digu.

Artxiboak diseinatutako hasierako jardueran argazkien garrantzia iturri historikotzat azpimarratzen da eta beren azterketa burutzeko eta bertatik informazioa eskuratzeko hainbat jarraibide ematen dira⁸. Era honetan, bi argazkien bidez, ariketak Gasteizko jaietan bereizgarriak diren bi ekitaldi goraipatzen ditu (Zenetara joatea eta Egunsentiko Arrosarioa). Lehenengo eta behin, argazki bakoitza denboran kokatu beharko da. Horretarako, ikasleei hainbat ezaugarrietan (janzkeran, automobiletan...) arreta jartzea eskatzen zaie. Ariketak hiru data posible eskaintzen dizkigu —1900 baino lehen, 1900 eta

⁸ Peter Burkek iturri ikonografikoen garrantzia iturri historiko bezala era sakonean aztertzen du (Burke, 2005).

1950 artean eta 1950 eta 2000 artean — . Ariketaren jatorrizko diseinua hobetzeko, gure iritziz eta iradokizun bezala, ez legoke gaizki egongo ezaugarri hauen artean argazkien tankera azpimarratzea eta iturriaren morfologian sartzea, argazki bat zuri-beltzekoa eta bestea koloreduna izanik, honek kronologiarekin harreman estua baitu. Ezaugarri honen arabera, denbora historiko linealean zein gertakari eman zen lehenago ondorioztatu dezakegu, hau da zuri-beltzean dagoena.

Janzkeraren arabera eta denbora historikoaren azterketarako hain garrantzitsua den iraupen kontzeptuan erreparatuz, bigarren argazkiak gaur egungo janzkerarekin alderatuta antzekotasun gehiago ditu, bertako pertsonak oraingo ospakizunetan bereizgarriak diren alkandorak janzten baitituzte —alkandorak jaietako janzkera gisa 1950 hamarkadan zehar agertu ziren (Prieto, 2012; De la Fuente, 2009). Era berean, zuri-beltzeko argazkian pertsonaiek janzkera tradizionalagoa daramate, denboran urrunago kokatuz. Automobilei dagokienez, zuri-beltzeko argazkian agertzen direnak oso zaharrak dira eta museoetan ikusi daitezke; koloreko argazkian agertzen direnak berriz, gaur egungo automobilekin antza gehiago dute eta ikasleek ezagutu ditzakete.

Behin argazkiak kronologikoki kokatu ostean, ikasleei argazkian irudikatutako gertakaria identifikatzen eskatzen zaie, hiru aukera eskainiz (Suziriaren jaurtiketa, zezenetara joatea edo egunsentiko Arrosarioa). Horretarako Gasteizko jaiei buruz zertxobait jakin beharko dute. Ikasleek dituzten aurrezagutzak nahikoak ez balira, argazkietan barrena argibidetzat hartu daitezkeen hainbat objektu bereizgarri ditugu, jatorrizko ariketaren diseinuak horietan arreta jarri beharko zuelarik. Gure ustez, ariketa honen potentzial didaktikoa areagotzeko, irakasleak hutsune hau bete eta argibideak bilatzen lagundu beharko die, argazkietan informazio garrantzitsua aurkitzen irakatsiz eta ikasleek argazkiak irakurtzen eta analizatzen ikasiz. Ikasleek bereizgarriak diren objektu hauetan arreta jartzeko, beste behin galderen bidez zuzenduak izatea proposatzen dugu —Argazkian zein objektu goraiapatuko zenuke?—, beraien jakin-mina sustatze aldera. Hori esanda, koloredun argazkian Ama Birgina ikus daiteke, erlijioarekin zerikusia duen ekitaldia izanik; hortaz, Egunsentiko Arrosarioa dela ondorioztatu dezakete. Bigarrean berriz, jendea martxan doala dirudi eta arreta gehiago jartzen badugu, Dato kaleko bereizgarriak diren balkoi eta miradoreak igar daitezke. Ohitura jarraika, gaur egun bizirauten duen ekitaldiarekin antzekotasun handia du, zezenetara joatean igarobide berdina egiten baita.

Gertakaria identifikatu ondoren, ikasleei argazkiak Gasteizko espazioan kokatzea eskatzen zaie, zein kaletan ematen diren adieraziz. Ataza honen azken atal hau baliagarri eta funtzio didaktiko aproposa izateko, gure aburuz identifikazioa burutzeko elementu bereizgarriak eduki beharko genituzke, denboran zehar iraun dutenak, iraganeko espazioa gaur egunekoarekin identifikatu ahal izateko. Horrela, zuri-beltzeko argazkia kokatzeko

makina arazo ditugu, erreferenteak ezartzeko eta gaur egungo egoerarekin alderatzeko aukerarik ez baitugu —Dato kalea gaur egun oinezkoena da, argazkian berriz trafikoari irekia—. Bigarren argazkian berriz, asko kostata eta arreta handia jarritz, Gasteizen famatua izan den eta gaur egun famatua den komertzio bat identifika daiteke —Peña Dulce—, Arriagako atea ka-lean kokatua dagoena.

Ariketa hau bukatzeko, ikasleei egindako analisiaren edo azterketaren sintesia burutzea eskatzen zaie, argazkiaren datazioa, gaia eta kokalekua adierazi beharko dituztelarik. Honen bidez, informazioaren trataeran murgiltzen eta GGZZetako azterketetan hain garrantzitsuak diren hiru galderei aurre egiten laguntzen die: Noiz gertatu zen, zer gertatu zen, eta non gertatu zen. Horrela, iraganeko gertakariak denboran eta espazioan kokatzeko eta gertakarien iraupen, aldiberekotasun eta jarraitasun harremanak haute-mateko teknikak erabiltzen ikasiko dute.

Iturri ikonografikoekin jarraituz, bigarren jarduera bat dugu. Kasu honetan jaietako kartelak aztertuta, ikasleak hiriaren eta honen jaien sinboloak identifikatu beharko ditu. Ariketa honen helburua denboran zehar ikonografia nola aldatu den jabetzea izango litzateke eta garai bakoitzean Gasteizko jaiak zerekin identifikatuko liratekeen. Azterketa hau 1897ko jaien karteletik hasi eta 1996koarekin bukatzen da. Hurrengo taulan adieraziko ditugu gure iritziz aurkitu daitezkeen sinbolo ezberdinak.

I. taula
Gasteizko jaien kartelak

Urtea	Hiriaren sinboloak	Jaietako sinboloak
1897	Ama Birjina	Zezenak, Farolen Prozesioa
1923	San Miguel eliza, Aihotz plaza	Gargantua, txistulariak
1946	Mazolariak, Udaletxea, San Miguel eliza	Farolen Prozesioa, Dantzariak
1964	Udaletxea, Naipeak	Celedon, Errege erraldoiak —giganteak—, Blusak
1981	San Miguel eliza, Udaletxearen zigilua	Blusak, neskak, herri kirolak
1996	San Miguel, San Vicente eta Santa Maria elizak, 1813ko Gasteizko batailaren monumentua	Txistulariak, blusak, neskak

Kartelen sinbologiaren aldaketa gizarteak pairatutako aldaketekin bat dator, garai bakoitzean adierazgarria den egoera irudikatuz. Horrela, lehenengo urteetan bai hiriaren sinbologian nahiz jaietako sinbologian erlijioak pisu nabarmena du. Gerora, jaien popularizazioarekin, erlijioa bigarren plano batean gelditzen da, jaien bereizgarria pertsonak izanez, behin eta berriz neskak eta blusak karteletan irudikatuak izanez.

ONDORIOAK

Aurreko lerroetan adierazitakoa kontutan izanda, Gasteizko artxibotako jarduerak ez dira diseinatu guztiz helburu didaktiko batekin, baizik eta ikastetxe eta erakundearen lehenengo gerturatzea ezartzeko, beren ikaskuntzarako potentzialtasuna bidean galtzen delarik. Agiritegiak iturriekin planteatzen dituen jarduera ezberdinak Gizarte Zientzietako didaktikarako eraginkorrak izan zitezten, hurrengo sekuentzia erreproduzitu beharko lukete. Lehenengo eta behin, hipotesi bat planteatu beharko zen era zehatz eta mugatuan, hainbat galdera edo azalpenen bidez eta hauekin zein helburu bete nahi ditugun zehaztuz. Iturri ezberdinen azterketaren bidez argitu behar den arazo bat aurkeztuko da, gaia motibagarria eta ikaslearen gertukoa izan behar delarik. Gainera, arazoari irtenbidea bilatzeko, iturrietan edo artxiboko dokumentuetan zehar pista edo argibide batzuen jarraipena ezarri beharko zen informazioaren prozesamendua errazteko —informazio iturriak bilatu eta kritikotasunez analizatu, informazioa edo datuak ulertu, baloratu, aukeratu eta ordenatu-mailakatu helburuen arabera, informazioa kontrastatu, informazioa laburtu,...— eta ikasleak era autonomoan ikasten duenean behar duen gidaritzza lana zehazteko. Azken finean iraganeko dokumentuak lantzeko klasifikazio eta analisi sistema bat ikaslea beharrezkoa da, lan intelektuala bideratzeko eta informazioaren bidez ezagutza eraikitzeke (Navarro, 2008). Oso era errazean egin zitekeen, adibidez aurreko lerroetan planteatu ditugun galdera sorten bidez, iturriari era egokian galdekatuz nahi dugun informazioa lortze aldera eta ikerketako metodo zientifikora pixkanaka gerturatzeke. Bide honetan, ikasleak iturri historikoak ikuspegi kritikoz lantzen ikasiko du, beren egokitasunaren inguruan hausnartzuz —objektiboak, subjektiboak, lehen eskukoak, bigarren eskukoak...—. Era berean, ikaskuntza autonomoaren gidaritzza lan honetan ikaslearen gaitasun kognitiboak kontutan hartu beharko ziren, ikasmaila bakoitzean iturri zehatz batzuk erabiliz eta galdera batzuk prestatuz.

Era berean iturri horiek aztertzean zein eduki landuko diren zehaztu beharko litzateke eta curriculumarekin harremana bilatu, irakasleak aurretik jakinez Historiako edo Geografiako gai zehatz bat jorratzeko zein iturri edo dokumentu baliagarri izan daitekeen. Iturriekin lan egin ostean, ikasleak ondorio batzuk atera beharko lituzke planteatutako galderei erantzunez, ikasgelan ikasitakoarekin harremana eduki beharko zutenak. Honek

guztiak GGZZen irakaskuntza-ikaskuntzan hain garrantzitsuak diren kausalitate eta ondorio kateak eraikitzen lagundu beharko du, gertakari historikoen ulermena erraztuz. Bestetik, jarduera bakoitzetik lortu nahi diren ondorioak definituak egon beharko lirarteke, irakasleak ebaluazio eraginkorra egin dezan.

Oinarrizko gaitasunei dagokienez, Gasteizko artxiboak planteatutako jarduerak bete betean ikasten ikasteko gaitasuna landuko dute, ikasleek beren kabuz ezagutza eraikitzeke hasierako bideak ezarriko baitituzte. Delors informarekin bat etorriz (1996), ikasleek ezagutza eraikitzen eta era kritikoan pentsatzen ikasiko dute, hainbat iturrietatik datorren informazioa interpretatuz eta bertatik ezagutza berriak lortuz. Honek informazioaren kudeaketarako gaitasunean sakonduko du, ikaslearen ikaskuntza prozesuan komunikabideak edo iturri ezberdinak erabiliko baitira.

Nahiz eta Gasteizko agiritegiak planteatzen dituen jarduerak ez dira diseinatu ezagutza historikoa ikerketaren bidez lortzeko, oso deskriptiboak eta sakontasun maila eskasa erakusten baitute, bere alde positiboa ere badute. Ikasleak bertako iturriek Gasteizko antzinako gizartea berreraikitzeke, ezagutzeko eta ulertzeko aukera ematen dietela jabetuko dira. Era berean, ikaslearen inguruko gizartean eta kulturaren denboraren poderioz gertatutako aldaketak eta eraldaketak antzemateko, balioesteko eta aldaketa horien aldiberekotasuna eta segida harremanak ezartzeko proposak direla ohartuko dira.

Iturri horiek GGZZko ikasgaietan jorratzen diren hainbat eduki kontzeptual eta prozedurazkoak lantzeko balio dute, ikaskuntzaren sekuentziaren edozein fasean aztertu daitezkeelarik. Motibagarriak izan daitezke bai ikaskuntzaren edo unitate didaktikoaren hasierako fasean, gai zehatz bati gerturatzeko; tartekoan, ikusitako hainbat eduki indartzeko edo amaierakoan, gaia ikasi ostean ondorioak ateratzeko. Hau esanda, iturri ezberdinekin proposatutako jarduera hauen heziketa eraginkortasuna ziurtatzeko, ikaskuntza prozesu oso baten barnean garatu beharko dira, helburu didaktiko garbi eta zehatzei erantzunez eta klasean landutako unitate didaktikoen edukiekin harreman estua edukiz. Horrela, ikasgelan jasotako ezagutza historiko orokorra ikaslearen gertuko errealitatearekin lotzeko eta honen aurrezagutzetara egokitzeko baliagarriak izango dira, ikaskuntza esanguratsuagoa lortuz.

Agerian gelditzen da artxiboa eta ikas komunitatearen arteko harremana oraindik bere hasierako fasean dagoela eta artxiboak ariketa batzuen bitartez bakarrik bere iturrien erakusketan pisua jartzen duela. Iraskuntza-irakaskuntza prozesuaren eraginkortasuna areagotu nahian, lankidetzaren honen harago joan beharko luke, ikasgeletan irakasten diren gaiekin edota edukiekin harreman zehatza bilatze aldera.

Jasotze-data: 2013/10/17

Onartze-data: 2014/01/20

Abstract

Taking into account new pedagogic views and thinking about the great importance of students in learning process, this article makes reflection about the power of Council Archives in teaching-learning Social Sciences in Primary and Secondary Education, helped by small researching projects. In this way, the following pages will research the education project of Vitoria-Gasteiz's Council Archive «Pilar Arostegui», titled «Archivos. Vitoria-Gasteiz como espacio educativo», underlining its advantages and disadvantages.

Keywords: *Archives, teaching-learning process, didactic resources, information sources, Primary-Secondary education, History.*

Siguiendo las nuevas corrientes pedagógicas y considerando al alumno como centro, eje y motor del proceso de aprendizaje, este artículo reflexiona sobre la potencialidad de los archivos municipales en la enseñanza-aprendizaje de las Ciencias Sociales en la enseñanza primaria y secundaria partiendo de pequeños proyectos de indagación. De este modo en las siguientes páginas analizaremos el proyecto educativo puesto en marcha por el archivo municipal «Pilar Arostegui» de Vitoria-Gasteiz «Archivos. Vitoria-Gasteiz como espacio educativo», destacando sus ventajas e inconvenientes.

Palabras clave: *Archivos, proceso de enseñanza-aprendizaje, recursos didácticos, fuentes de información, Enseñanza Primaria-Secundaria, Historia.*

Après les nouvelles tendances de l'éducation et considérant l'étudiant comme le centre et la force du processus d'apprentissage, cet article se penche sur le potentiel des archives municipales dans l'enseignement et l'apprentissage des sciences sociales dans l'enseignement primaire et secondaire de petits projets de enquête. Ainsi, dans les pages qui suivent, nous allons analyser le projet éducatif lancé par le archive municipale «Pilar Arostegui» Vitoria-Gasteiz «Archives. Vitoria-Gasteiz comme un espace éducatif », en soulignant leurs avantages et inconvénients

Mots clé: *Archives, enseignement-acquisition de connaissances processus, didactique ressources, source d'information, enseignement primaire-secondaire, Histoire*